

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

Ikasleen laburpena aztergai, Lehen Hezkuntzan:
testu luzera, koherentzia erlazioak, gai nagusia

Egilea: Unai Atutxa Barrenetxea

Zuzendaria: Mikel Iruskietea

Leioan, 2016(e)ko maiatzaren 31(e)(a)n

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	6
2. Metodologia	11
2.1 Corpora lortu.....	11
2.2 Ikasleen laburpen corpora lortzeko urratsak	13
2.3 Laburpenen corpusaren ebaluazioa	17
3. Emaitzak.....	20
3.1 Laburpenen luzera.....	21
3.2 Unitate Zentrala edo Ideia Nagusia	26
3.3 Erlazio erretorikoak.....	30
4. Ondorioak.....	36
5. Eskerrak.....	39
6. Erreferentzia bibliografikoak	39

ERANSKINAK

1. eranskina. Ikasleen eta irakasleen corpusak biltzeko erabili ditugun testuak.....	40
2. eranskina. Irakasleen laburpenen urre patroizko corpora.....	51
3. eranskina. Ikasleen laburpen corpusak, argazkietan.....	54
4. eranskina. Ikasleen eta irakasleen laburpen corpusen arteko konparaketa, argazkietan.....	58

IKASLEEN LABURPENA AZTERGAI, LEHEN HEZKUNTZAN: TESTU LUZERA, KOHERENTZIA, GAI NAGUSIA

Unai Atutxa Barrenetxea

UPV/EHU

Laburpena

Ikasleek eskoletan testuak irakurtzen dituzte, ondoren testu horiekin dagozkien ulermen-ariketak egiten dituzte eta sarri askotan erlaziozko diskurtso-egitura (koherentzia) ez da kontuan hartzen. Artikulu honetan Lehen Hezkuntzako ikasleek egindako laburpenen bidez testu bat nola ulertzen duten aztertzen dugu. Horretarako, irakasleen eta ikasleen laburpenekin corpus bat eratu dugu. Ikasleen laburpenak irakasleen laburpenekin konparatu ditugu erlazio-egituran dauden ezberdintasunak deskribatzeko eta jakiteko ikasleek testuak nola ulertzen dituzten laburpenen bitartez. Laburpen-testuak ebaluatzeko Egitura Erretorikoaren Teoriako (RST) honako fenomeno hauek baliatu ditugu: i) testu-luzera, ii) diskurtso-egiturako gai nagusia eta iii) erlaziozko diskurtso-egitura. Lortutako emaitzek erakusten dute ikasleek testuak laburtzen badakitela, baina zailtasunak dituztela testuko ideia nagusia identifikatzerako orduan eta horrek testuaren erlazio-egiturari eragiten diola.

Gako hitzak: Lehen Hezkuntza, laburpena, gai nagusia, RST, erlazio-egitura, koherentzia

Abstract

Students make understanding-exercises after reading texts and they do not take into account usually the relational discourse structure. In this article, we analyse how students understand the text in summarising texts. To do this, we build a corpus with students and teachers summaries. These summaries (students and teachers summaries) were compared in order to describe the differences of relational discourse structure and also to know how students understand the texts when they have to summarise them. Following Rhetorical Structure Theory (RST) we have evaluate the summarised texts, checking the following phenomena: i) the length of the text, ii) the main topic of the text and iii) the relational discourse structure. Results show that students know how they

have to summarise texts but they show difficulties to identify the main topic or idea of texts and, therefore, this affects coherence and the relational discourse structure.

Key words: Primary education, summaryzation, main topic, RST, relational discourse structure, coherence.

Sarrera

Geroz eta informazio gehiago dugu eskuragarri gaur egun. Ez dago zalantzarik gauza ona dela informazioa lortzeko aukera andana izatea, baina baditu bere arriskuak ere. Informazioari erabilera egokia emateko ez da nahikoa iturri egokiez baliatzea, esku artean dugun informazioarekin zer egin jakin behar da erabilera egokia eman diezaiogun. Horretarako, nahitaezkoa dugu informazioa laburtzen jakitea, laburtzeak testua ulertzen ez ezik, barneratzen ere laguntzen baitigu.

Laburpenak edozein arlotan du garrantzia, baita hezkuntzan ere. Gaur egungo eskoletan ikasleak nahi beste informazio izan dezake, baina horrek ez du esan nahi ulertzea eta barneratzea errazten direnik. Ikasleak gai izan behar du lehenik eta behin irakurritakoa, entzundakoa edo ikusitakoa ulertzeko eta, ondoren, bere hitzekin adierazteko. Baina testua hein batean ulertzea ez da nahikoa, jasotako horretatik informazio garrantzitsuena zein den bereizi behar da. Prozesu horri laburtzea esaten zaio.

Aurrekoarekin lotuta, irakasleak ere jakin behar du zer den ikasleak ulertzen duena eta horretarako ere laburpena tresna baliagarria izan daiteke. Sanzek (2005) frogatu du idatzitakoa ulertzeko ikasketa teknika dela laburtzea eta laburpenean dagoen informazioak adierazten digula testua zenbateko neurrian ulertu den.

Ikasleak gazte-gaztetatik hasten dira hainbat eduki lantzen; izan ere, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eduki horiek barneratzea du helburuetariko bat. Baina barneratze hori ezin daiteke eman laburtzen jakin gabe, hots, informazio garrantzitsua erabiltzen jakin gabe. Hori dela eta, garrantzitsua da eskoletan laburpena beharrezkoa dela erakustea.

Laburpenak ulermenaren prozesu asko (semantikoa, sintaktikoa eta diskurtsozkoa) aktibatzen ditu eta ondo laburtzeko gaitasuna adinarekin garatzen da, irakaskuntza sistematikoarekin eta irakurlearen eskarmentuarekin, besteak beste (Sanz 2005).

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretuan honako hau ageri da: *“Hizkuntza-trebetasunak hainbat erabilera esparrutan mugatzen dira, zeren eta gizartearen esparrua eta erabilitako testu mota aldatu ahala, berariazko trebetasun eta estrategiak behar baitira testuak ulertu eta sortzeko”*. Horretaz gain, dekretu berak dio helburuetariko bat honako hau

dela: *“Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko”*.

Beraz, ikasleek beraien laburpen gaitasuna garatu behar dute ikasketa prozesuan eta hori lortzeko irakaslea estrategia eta tresna edo ariketa egokiez baliatu behar da.

Hori guztia horrela izaki, lan honetan helburutzat dugu aztertzea ikasleek testu ezberdinak nola laburtzen dituzten. Ikasleen laburpenak ebaluatuko ditugu eta ikusi laburpen bat egiterako unean zein aldagaik eragin dezaketen, testuen ezaugarriak eta norbanakoaren gaitasunak, esaterako. Ikasleek nola laburtzen duten aztertzeak lagunduko digu ikasleen laburtzeko gaitasuna deskribatzen eta esku-hartze egokiekin garatzen. Prozesu hori nola egiten den garrantzitsua da; izan ere, ikasleen laburtzeko gaitasuna garatzeak ikasketa esanguratsuagoa izatea ekar lezake.

Ikasleek nola laburtzen duten aztertzeko honako metodo hau jarraitu dugu:

- 1) **Corpusa lortu:** curriculumean oinarritutako 11 testuz osatu dugu. Testu horiek laburtuz irakasleen urre patroizko corpusa atera dugu eta baita ikasleen corpusa ere, 44 laburpenez osatua.
- 2) **Laburpenen ebaluazioa:** ikasleen laburpen testuak eta irakasleenak alderatu ditugu azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa eginez. Horretarako, Egitura Erretorikoaren Teorian (RST) (Mann eta Thompson 1987) oinarritutako hiru aldagai hauek ebaluatuko ditugu:
 - i. Testu-luzera
 - ii. Gai nagusia
 - iii. Erlazioak

Ikerketa hau bost ataletan egongo da banatua, sarrera honen ostean ikerketa burutzeko oinarri teorikoak jaso dira. Ondoren, erabili dugun metodologia azalduko dugu. Laugarren atalean ikerketaren datuen azterketa aurkeztuko dugu eta, amaitzeko, ondorioak eta etorkizunerako proposamenak egingo ditugu.

1. Marko teorikoa

Zipitria et al.en (2007) arabera asko hitz egin da laburpen on batek izan beharko lituzkeen osagaiei buruz. Baina nolakoa da laburpen on bat? Laburpenetan beti ez dago guk espero duguna. Edonola ere, laburpen heldu eta heldugabeek dituzten antzekotasun eta ezberdintasunak deskriba daitezke, baita irakurle on eta kaxkarrek dituztenak ere.

Irakurle onen ezaugarriak	Irakurle kaxkarren ezaugarriak
Ez dute hitzez hitz irakurtzen	Hitzez hitz irakurtzeko joera dute
Esanahiak irakurtzen dituzte	Esanahiak ulertzeko zailtasunak dituzte
Deskodetzeko gaitasun garatua	Deskodetzeko gaitasun eskasa dute
Hainbat estrategiaz baliatzen da	Estrategiak erabiltzeko zailtasunak dituzte
Irakurtzeko metodoaz jabetzen da	Ez dira irakurtzeko metodoen jabe
Erlazio markatzaileak erabiltzen dituzte	Erlazio markatzaileak erabiltzeko zailtasunak dituzte
Estrategia metakognitiboak erabiltzen ditu.	Ez dute beraien ulermena balioztatzen
Bere buruari galderak egiten dizkio	Galderak egiteko abilezia eskasa dute
Informazioa era zehatz batean darabilte	Informazioa selektiboki prozesatzeko zailtasunak dituzte
Idea nagusiak ulertzeko erraztasuna dute.	Idea nagusiak ulertzeko zailtasunak dituzte

1. Taula. Irakurle onen eta kaxkarren ezaugarriak

Laburtzeko gaitasuna idazteko gaitasunaren barruan dago sartuta eta bere garapena garapen kognitibo eta diskurtso garapenarekin dago lotuta.

Sanzek (2005) dioenez, testua laburtzea testua ulertzea baino konplexuagoa da; izan ere, ulertutako mezuaren barne irudikapena (ideien antolamendua) egiteaz gain, irakurleak erabaki behar du barne irudikapen horretako osagaietatik zein ideia diren garrantzitsuenak edota nagusiak. Beste era batera esanda, irakurleak mezuaren koherentzia-erlazioak irudikatzeaz gain, diskurtso-egituraren hierarkikotasuna zein den

erabaki behar du.

Laburpenaz mintzo garenean, ezin ditzakegu irakurmena eta ulermena moduko prozesuak albo batera utzi, beraiek baitira laburpenari bide emango diotenak.

Irakurmena hobetzeko, ikasleek estrategia edo trebetasun ezberdinak garatu behar dituzte. Baina argi izan behar dugu teknikak eta estrategiak ez direla gauza bera. Oharrak idaztea teknika edo erregela bat erabiltzea da, aldiz, ideia nagusiak antzematea trebetasun edo estrategia bat. Azken batean, erregela edo teknika bat erabiltzeak ez du ulermenezko irakurketa hobetzen, estrategia egokiak erabili ezean.

Ulermena bermatzeko eta, ondorioz, laburpen on bat lortu ahal izateko, oso garrantzitsua da estrategia metakognitiboak lantzea, hots, irakurlea ohartzea ulermen prozesuaz noraino jabetzen den. Sarritan irakurleak ez du kontuan hartzen irakurtzen duena ulertzen duen, hori da ulermenarekin edo testuaren koherentziarekin loturiko akats handienetarikoa bat.

Testuen koherentzia hobeto ulertzeko, eskemak edo mapa semantikoak teknika gisa erabiltzea baliagarria da. Informazioa garrantzia hierarkikoaren arabera irudikatzen da eta horrek errazago egiten du testuak ulertzea. Sanzek (2005) dio kontzeptu mapak direla ikasketa esanguratsua ahalbidetzen duten tresnak eta norberaren aurre ezagutzak eta ezagutza berriak uztartzea ahalbidetzen dutela. Bere esanetan kontzeptu mapak kontzeptuak eta beraien arteko erlazio hierarkikoak irudikatzeko modu bat eskaintzen dute.

Diskurtso egituraren hierarkikotasuna zein den deskribatzeko, Egitura Erretorikoaren Teoria edo *Rhetorical Structure Theory* (RST) erabiliko dugu. Testuaren egitura edo koherentzia deskribatzen duen teoria dugu RST. RSTk koherenteak diren testu mota gehientsuenak deskribatzea ahalbidetzen digu (Marcu 2000), hizkuntza batean edo bestean izan (Mann eta Thompson 1987).¹

Jarraian, 2. taulan, testu baten adibidea aurkeztuko dugu, testuaren erlazio egitura eta laburpentzat zer hartzen dugun erakusteko.

¹ RSTri buruz euskaraz gehiago jakiteko jo Iruskietaren (2014) lanera.

Zer da espezie inbaditzailea?

Espezie inbaditzailea da leku batean berezkoa izan ez eta hara gizakiaren bidez iristen den izaki biziduna. Horietako batzuk ez dira ingurune berrira egokitzen eta desagertu egiten dira. Beste batzuk, aldiz, egokitu eta ugaltu egiten dira, baina espezie autoktonoekin bizirauteko lehian desagertu egiten dira. Beste batzuek aurrera egiten dute eta espezie inbaditzaile bihurtzen dira. Eta orduan hasten dira arazoak. Gerta liteke, adibidez, lehen landare asko zeuden zelai batean, gero kanpotik ekarritako bat bakarra gelditzea.

Izan ere, espezie inbaditzaileek autoktonoak jaten eta desagerrarazten dituzte. Horrek, fauna eta flora guztia alda dezake, eta baita kalteak eragin ere. Esate baterako, Itsaso Beltzean medusa bat ikaragarri zabaldu zen, eta landareak ez ezik, hango arrain guztiak akabatu zituen. Kaspio itsasora zabaltzeko beldur dira eta hori geldiarazten saiatzen ari dira, besteak beste hor kabiarrak dagoelako.

Edonola ere, eragindako kaltea ez da berdina kasu guztietan. Badira arazo larriak eragin dituzten espezieak: karramarro gorria, zebra muskuilua, alga hiltzailea... Beste batzuek arazo arinagoak eragin dituzte. Eta leku batetik bestera ere aldea nabari da. Esate baterako, ganbusiak Gipuzkoan eragindako arazoa ez da hain larria, baina bai, aldiz, Valentziako lurretan. Han "saramuc" arrain autoktonoaren desagertzea eragin dezake. Era berean, Japoniako falopiak ez du kalte handirik eragingo Andaluzian eta Extremaduran, hezetasun handia behar baitu. Aitzitik, oso arriskutsua bilaka daiteke Euskal Herriko ibai ertzetako ekosistamarako.

2. Taula. "Espezie inbaditzailea" testua. Erabili dugun corpuseko testu bat da.

Testuaren egitura RSTn deskribatzeko, testuaren osagaiak zeintzuk diren eta osagai horien artean zein harreman edo erlazio dauden zehaztu behar da, horretarako zenbait urrats eman behar dira:

i) Segmentazioa. Testua zatitzea edo segmentatzea da testua aztertzeko eman beharreko lehen urratsa. Adibidez, 1. irudian 5 segmentu agertzen dira, bakoitzak proposizio bat hartzen duelarik.

1	2	3	4	5
Espezie inbaditzailea da leku batean berezkoa izan ez eta hara gizakiaren bidez iristen den izaki biziduna	.Horietako batzuk ez dira ingurune berrira egokitzen	eta desagertu egiten dira.	Beste batzuk, aldiz, egokitu eta ugaltu egiten dira,	baina espezie autoktonoekin bizirauteko lehian desagertu egiten dira.

1. Irudia. " Espezie inbaditzailea" testuaren hasiera segmentatuta

ii) Gai nagusia. Ondoren, unitaterik garrantzitsuena zein den erabaki behar da (Iruskieta et al. 2014); *Espezie inbaditzailearen unitate zentrala edo ideia nagusia segmentaturiko 1. diskurtso zatia (1) adibideko testu hau da:*

(1) Espezie inbaditzailea da leku batean berezkoa izan ez eta hara gizakiaren bidez iristen den izaki biziduna.

Testuaren ideia nagusia da egileak komunikatu nahi izan duen oinarritzko mezua.

iii) Erlazio-egitura. Azkenik, unitateek elkarren artean dituzten koherentziazko erlazioak ezartzen dira. Testu-zatien arteko koherentziazko erlazioei erlazio erretoriko deritzegu. Erlazio erretorikoekin soilik deskribatzen da koherentzia RSTn. RSTn erlazio bat beste erlazio baten unitatea izango da, erlazioak errekurtsiboak direlako. Testu-zatiren bat ez-koherentea denean, unitate batean esaten denak ez du bestean esaten denarekin erlazorik izango (*non-sequitur*). Beraz testu koherenteetan ez da *non-sequitur* egongo (Iruskieta 2014: 348).

Nabarmendu behar da ez dutela garrantzia bera diskurtso unitate guztiek erlazio egituran. Idazlearentzat testuaren mezua edo intentzioa komunikatzeko diskurtso-unitate batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira. Horiei nukleo-unitate (*nuclear unit*, N) esaten diegu eta besteei aldiz satelite-unitate (satellite unit, S).

Testuan garrantzitsua dena eta ez dena bereiztea, hots, ideia nagusiak ulertzea oso trebetasun garrantzitsua da. Trebetasun horretan aldagai nagusi bi daude: i) Irakurleak. “Irakurle kaskarrak” (Sanz, 2005: 44) ez dira gauza, funtsezkoa dena eta ez dena bereizteko. ii) Testuen ezaugarriak. Testuaren ezaugarriek ere eragin zuzena dute ideia nagusiak identifikatzean, esaterako, ideia nagusiak era esplizituan agertzeak asko errazten dio lana irakurlari, era inplizituan agertzeak zaildu egiten ditu gauzak. Ideia nagusia, esaldi bakarrean dagoenean, askoz errazagoa da berau identifikatzea.


Unitate bat nukleo ala satelite den esateari nukleartasuna (nuclearity) ebaztea esaten diogu. Nukleorik garrantzitsuena testuko gai nagusia da eta RSTn horri unitate zentrala esaten zaio (Iruskieta et al. 2014). Unitate zentralak laburpenarekin lotura estua du, bera baitugu gai nagusia eta, beraz, laburpenak izan behar duen testu zati garrantzitsuena.

3. taulan “Espezie inbaditzailea” testuaren laburpena ageri da, irakasleak eginiko urre patroizko corpusaren parte da.

Irakaslearen laburpena
<p>Espezie inbaditzailea izatez leku batekoa ez den baina gizakiak bertara eraman duen izaki biziduna da. Horietatik batzuk ez dira egokitzen ingurune berri horretara, beste batzuk ordea bai. Egokitzea lortzen duten horiek autoktonoak jan eta desagerrarazten dituzte eta ondorioz fauna eta florak aldaketak jasan ditzake, horrek arazo ugari sortuz, kasu batzuetan larriak eta beste batzuetan aldiz arinak.</p>

3.Taula. “Espezie inbaditzailea” testuaren laburpena, irakasleak egina

2. Irudian laburpen horren zuhaitza jarri dugu, zuhaitz horrek testuaren laburpena erlazio erretorikoen bidez deskribatzen du.²



2. Irudia. Irakaslearen laburpena RSTko egiturarekin irudikatuta

2. irudian irakasleek egindako laburpen baten zuhaitza ikus genezake. 2. irudiko erlazio-egiturako ezaugarri nagusiak hauek dira:

1. Oinarrizko diskurtso unitateak (EDUak) eta diskurtso unitate multzoak. Lehendabizi, testua segmentatu dugu EDUetan. Testu honek 5 EDU ditu. 2. irudian oinarrizko diskurtso-unitateak RSTn lerro horizontalekin irudikatzen dira eta letik 5erakoak dira. Horiez gain, diskurtso unitate konplexuak 4 diskurtso unitate multzo daude: 2-5, 3-5, 4-5, eta 1-5.

² Testu osoaren zuhaitza ez dugu jarriko ez baita osorik sartzen.

2. Unitate zentrala eta nukelartasuna. Testu osoko unitate zentrala, ideiarik garrantzitsuena, lerro zuzen bertikalei jarraituz identifikatzen da erlazio hipotaktikoa denean eta lerro zuzen diagonalei jarraituz parataktikoa denean. 1. irudiko unitate zentrala 2-2 da: "*Espezie inbaditzailea izatez leku batekoa ez den baina gizakiak bertara eraman duen izaki biziduna da*".

Nukleartasunari dagokionez, laburpenean dauden sateliteak (S) honako hauek dira: 1-1, 5-5 eta 3-5 eta nukleoak (N) 2-2, 3-3, 4-4, 4-5 eta 2-5.

3. Erlazio erretorikoei so eginez, 1. irudiko erlazio-egiturak honela azal daitezke:
- Prestatzea: S-rekin irakurleari N-n dagoen informazioa aurreratzen edo interesa pizten dio idazleak.
 - Elaborazioa: S-n aurkeztutako egoerak N-ko ezaugarriren bat garatzen duela onartzen du irakurleak. Irakurleak garatutako gaia edo elementua identifikatzen du.
 - Kontrastea: Aurkaritzazko konparazioen berdintasunak eta ezberdintasunak onartzen ditu irakurleak.
 - Ondorioa: Irakurleak onartzen du N dela S-ren kausa edo S- dela N-ren ondorioa.

2. Metodologia

Gure helburua lortzeko egin duguna pausoz pauso azalduko dugu jarraian. 2.1 puntuan lana aurrera eramateko behar izan ditugun corpusez arituko gara eta 2.1.2an ikasleen corpora lortzeko eman ditugun urratsak zehaztuko ditugu. Azkenik, 2.2an, laburpenen corpusaren ebaluazioa izango dugu hizpide.

2.1 Corpusak lortu.

Gure iker-corpusa hiru ataletan banatuta dago:

- i) Testu osoen corpora hamaika testuz osaturik dago. Testu horiek eskolan erabili behar direnez, Lehen Hezkuntzako curriculum hartu dugu oinarritzat testuen edukia zehazteko. Irakurketa eta laburpena hirugarren zikloan egitea erabaki dugu, Sanzek (2005) baitio adin-tarte hori dela egokia laburpena erakusteko. Zehazki, testuak Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera irakasgaietan erabiltzeko modukoak dira, edukiak ondorengo hauek izaki:

- a. Lehenengo eduki multzoa: ingurumenaz gozatzea eta hura errespetatzea, defendatzea eta hobetzea. Proposamenak egitea eta aplikatzea.
- b. Bigarren eduki multzoa: jokabide aktiboarekin, landare eta animaliak iraunarazi eta zaintzea.

Corpusa orotara, 11 testuak kontutan izanez, 1340 hitzez dago osatua, 815 motatako hitzez. Corpuseko lemak ere 1340 dira, baina, 537 motatakoak. 289 motatako 503 izen daude, 67 motatako 106 adjektibo eta 116 motatako 423 aditz. Guztira 107 esaldiz dago osatua corpusa.³

Bestalde, hamaika testuak genero berekoak ez izatea erabaki dugu, aldagai hori aztertu ahal izateko. 4. taulan daude sailkatuta corpus testuak generoari dagokionez:

Testu generoak	Definizioa	Testuak ⁴
Narrazio testua	errealak zein asmatutako ekintzei buruz informatzea da bere xedea.	J,K
Deskribapen testua	pertsonak, lekuak, gauzak etabar nolakoak diren adieraztea da bere funtzioa. Gehienetan, beste testu tipoen “barruan” agertzen da, eta bigarren mailako funtzioa du, nahiz zeta noizbehinka funtzio nagusia izan.	
Irakasbide testua	bere xede nagusia besteen jokaera bideratzea, aholkatzea eta agintza da.	I
Azalpen testua	helburu didaktikoa du, eta bere xedea besteak informatzea eta zerbait ulertaraztea da (ideiak, kontzeptuak, ekintzak...)	A,B,C,D, E,F,G,H
Argudio testua	helburua ideia propioak defenditzea eta kontrako ideiak eztabaidatzea da, hartzaileak konbentzitzeko asmoz.	

4. Taula. Testu generoak, beraien definizioa eta corpusa eratzen duten testuak generoka banatuta

ii) Irakasleek egindako laburpen bilduma (laburpenen urre-patroia). Corpuseko testu bakoitzaren unitate zentralak eta laburpenak egin dituzte bi irakaslek. Laburpenen koherentzia deskribatzeko, RST erabili dugu, hau da, testuaren egitura deskribatu dugu testuaren osagaiak zeintzuk diren eta osagai horien artean zein harreman edo erlazio dauden zehaztuz (2. irudian erakutsi gisa).

iii) Ikasleek egindako laburpen corpusa. Corpus hau Bizkaiko Lehen Hezkuntzako D ereduko eskola bateko 3 geletako ikasleen egindako testuekin osatu dugu. Ikasleei

³ Informazio hori lortzeko ANALITZA erabili dugu: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analitza.php?lang=en>

⁴ Testu hauek eranskinetan daude eta erreferentzia sistema bera jarraitzen dute.

unitate zentrala zein den zehazteko eta, ondoren, laburpena egiteko eskatu diogu, ikasle bakoitzeko bina testu. Guztira, 44 laburpen-testu.

2.1.2 Ikasleen laburpen corpora lortzeko urratsak

Ikasleei unitate zentrala eta laburpena egiteko esan aurretik jarduera batzuen bitartez trebetasun zenbait landu nahi izan ditugu, honako prozesu hau segituz:

1. Lehenengo, “sakonki prozesatu” (Sanz 2005) trebetasuna landu dugu, ariketa bakarraren bitartez landu dugun trebetasuna izan da sakonki prozesatzea. Azaldu diegu umeei testuaren edukia adieraz daitekeela testukoak ez diren hitzekin, eta gainera, testua horrela adierazteak erakusten duela testua ulertu dutela.
 - a) Lehendabizi, testuko lehen parrafoa guk irakurri dugu, ondoren, irakurritakoa nola esan erakutsi diegu gure hitzak erabiliz, umeei nola egiten den ikus zezaten.
 - b) Ondoren, testuko beste zenbait esaldirekin gauza bera egiteko eskatu diegu beraiei.
2. Bigarren jarduerarekin “koherentzia globala” (Sanz 2005) jorratu dugu. Kontzeptu mapa bat egin dugu arbelean (guztiz osatu gabea) eta denon artean osatu dugu, ikusiaz ideiak hierarkizatu egiten direla goitik behera beraien garrantziaren arabera. Ondoren, denon artean laburpen bat egin dugu, ikusteko mapa kontzeptualaren eta laburpenaren arteko lotura. Horren ostean, testuaren laburpena eman diegu klasean denok batera eginikoarekin alderatzeko.
3. Hirugarren jarduerarekin “laburtzeko trebetasuna” (Sanz 2005) landu dugu. Ikasleei testuari titulu bat jartzeko esan diegu, testua laburtzen duen esaldi bat.

Honako testu hau eman diogu ikasleei goiko trebetasunak lantzen lagundu diguten jarduerak egiteko.

<p>Testua (Sanz 2005: 83.orr)</p>	<p>Erbiaren lagunik ez dugu ezagutzen animalien munduan. Arerio franko ditu, ordea, horiek guztiak haragijale: erbinude txikia edo erdi barazkijalea den azkonar alferra, kasu.</p> <p>Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzeko eta ihesari emateko gaitasunak ontzen. Arriskupean dagoen erbi batek ez du lerro zuzenean jotzen, beste animaliek egiten duten bezala, sigi-sagan baizik, eta jauzi xebreak ematen ditu, horrela etsaiari nahasmendua eragiten dio. Zoriak laguntzen badio eta gordelekura iristea lortzen badu, zuzenean barrura sartu beharrean, harrapatzailea desorientatzeko asmoz, aztarnak nahasten ditu.</p> <p>Erne eta arretaz ibilita ere, makina bat erbi harrapatzen dituzte. Naturak horrela aurreikusita, eta espeziaren iraungipena zailtzeko, oso ugalkorra egin zuen animalia hau. Hamabost hilabeteko eme batek urtean lau umaldi izan ditzake, guztira 9 ume erdituz. Eman dezagun 9 horietatik 4 emeak direla, eta ugalketa bide horretatik jarraituz gero, 9 urtean erbi batek 65.501 ume izan ditzake.</p>
<p>Irakaslearen UZa</p>	<p>Nola bizirauten duen erbiak</p>
<p>Ikaslearen UZa</p>	<p>Erbia nola bizi den</p>
<p>Irakasleen laburpena</p>	<p>Erbiek makina bat etsai haragijale dituzte.</p> <p>Bere etsaiengandik ihes egiteko aztarna faltsuak erabiltzen dituzte eta kontu handiz ibiltzen dira. Hala eta guztiz ere, erbi asko hiltzen dira, eta naturak oso ugalkorak egin ditu.</p>


5. Taula. Erbiaren ariketa UZ eta laburpenarekin

2. taulako ikaslearen unitate zentrala ontzat eman daiteke, nahiz eta “biziraun” eta “bizi” aditzen adierak ezberdinak izan. Harluxet hiztegi entziklopedikoak honela definitzen ditu bi hitzak:

- *Bizi: 1. iz. Landareen, animalien eta bestelako izaki bizidunen oinarritzko ezaugarrien multzoa, (elikatzea, haztea, ugaltzea, etab.). Bizia itsasoan sortu omen zen.*
- *Biziraun: du ad. Bizirik iraun.*


3. Irudian ikasleen corpusaren adibide bat ageri da.⁵

⁵ “Erbia” testuaren laburpena ahoz egin genuenez, “Espezie inbaditzailea” testuko adibidea jarri dugu ikusgai. “Erbia” testuarekin ariketa berdinak egin genituen baina ez zuten idatziz egin, hori dela eta ez dugu ikasleek eginiko “Erbia” testuaren laburpenik.



3. Irudia. Ikasleen corpora osatzen duen testu baten unitate zentrala eta laburpena

Beraz, zenbait jarduera egin genituen “Erbia” testuarekin, arestian “Erbia” testua ikusi dugu eta 4. Irudia “Erbia” testua RSTko egiturarekin irudikatuta ikusiko dugu.




4. Irudia. "Erbia" testuaren RSTko irudikapen grafikoa

Gero, ikasleei “Erbia” testuaren laburpen bat erakutsi diegu, ikus zezaten.

“Erbia” testuaren laburpena, ikasleei erakutsi dieguna, (Sanz 2005):

Erbiek makina bat etsai haragijale dituzte. Bere etsaiengandik ihes egiteko aztarna faltsuak erabiltzen dituzte eta kontu handiz ibiltzen dira. Hala eta guztiz ere, erbi asko hiltzen dira, eta naturak oso ugalkorrek egin ditu.

“Erbia” testu laburtuaren erlaziozko diskurtso-egitura honako hau da:⁶




5. Irudia. Erbia testuaren laburpena RSTko egiturarekin irudikatuta

2.2 Laburpenen corpusaren ebaluazioa

Ikasleen unitate zentralak eta laburpen-testuak irakasleenekin konparatu eta azterketa kuantitatiboa (estaldura, doitasuna, eta f-neurri estatistikoekin) eta kualitatiboa egin dugu, aldagai jakin hauek aintzat harturik: i) testu-luzera egokia den (hitzen bidez), ii) unitate zentralak edo ideia nagusiak bat datozen eta iii) diskurtso unitateen erlazioak bat datozen aztertuko dugu.

Erlazioei dagokienean, urre patroizko corpora ikasleen laburpenekin alderatzean zuhaitzaren adar nagusira doazen erlazioak soilik izan ditugu kontutan, horiek baitira erlazio esanguratsuenak. 6. irudian dauden lerro berdeek osatzen dute adar nagusia eta berdez biribildutako erlazioak dira adar nagusira doazen bakarrak.

⁶ “Erbia” testuan eta bere laburpenean UZ implizitua da 1-5




6. Irudia. "Espezie inbaditzailea" testuaren RSTko diskurtso egituraren adar nagusia eta bertara doazen erlazioak

Honako hau izan dugu kontutan ikasleen laburpenak urre patroizkoekin alderatzean erlazioak ebaluatzeko; zenbat erlazio dauden ados, zenbat falta diren eta sobra zenbat dituzten.


Irizpide hori jarraitu dugu f-neurria lortzeko asmoz, f-neurriari esker jakingo dugu erdietsitako emaitzak esanguratsuak diren edo ez.

7. irudian ikusiko dugu nola alderatu ditugun ikasleen corpusak irakasleen corpusekin. Bertan jaso dugu ikasleen laburpenaren luzera, UZ bat datorren eta zenbat erlazio dauden ados, faltan eta sobran. Irakaslearen corpusa goiko aldean dago eta ikaslearen corpusa osterara behean. UZak ez datoz bat eta biribilduta dauden erlazioak adar nagusira doazenak dira, bi geziekin lotu ditugu ados daudelako. Ikasleen beste bi lotu gabe geratu dira, beraz 2 erlazio sobran dituzte. Irakasleen corpusean ez da geratu borobilduta dagoen erlazorik geziekin lotzeke, horrek esan nahi du ez dagoela erlazorik faltan.



7. Irudia. Ikasleen corpusaren eta irakasleen corpusaren arteko alderaketa

Metodologia laburtuz, 8. irudian erabili dugun metodologia ageri da laburki, lehendabizi 11 testuz osaturiko corpusa eratu dugu, natura ardatz duten testuak dira. Corpus horri esker, alde batetik irakasleen urre patroizko corpusa eta bestetik ikasleen laburpen corpusa bildu ditugu, azken hau 44 testuz osaturik. Behin corpusak bildurik, irakasleen corpusa eta ikasleena alderatu ditugu, hiru aldagai kontutan izanik; i) testu-luzera, ii) unitate zentralak edo ideia nagusiak eta iii) diskurtso unitateen erlazioak.



8. Irudia. Erabilitako metodologiaren irudikapena

3. Emaitzak

Ikasleen laburpenak urre patroizko laburpenekin alderatu ondoren, datuak kalkulu-orri batean bildu ditugu eta 6. taula sortu. Taularen ezker zutabea ikasleen laburpen testuen izenak ageri dira. Bigarren zutabea ikasleek unitate zentrala edo ideia nagusia ongi identifikatu duten ala ez jarri dugu.⁷ Hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren zutabeak erlazioak ebaluatzeko erabiliko ditugu. Hirugarren zutabea ikasleek urre patroizko corpusarekin alderatuz zenbat erlazio izan dituzten ados agertuko da, laugarrenean zenbat erlazio falta zaizkien eta bosgarrenean zenbat erlazio dituzten soberan. Hiru zutabe horiei esker seigarren zutabea kalkulatu dugu, hots, testu bakoitzak nolako emaitza erdietsi duen erlazioei dagokienean adierazten diguna, kalkulu hori egiteko f-neurriaz baliatu gara. Azken zutabea ikasleen laburpen testuek dituzten hitz kopuruak ageri dira.

⁷ Ikasleen unitate zentrala urre patroizkoarekin bat etorri denean “bai” eta bat etorri ez direnean “ez” jarri dugu. Badira koherentzia ez duten testuak (4), (non-sequitur). Bada baita egin gabeko bat ere.

Testuak	uz	ados	falta	sobra	f-neurria	Hitz.kop
ac1a	ez	1	1	1	0,5	32
ac2a	bai	2	0	1	0,79	67
ad1a	bai	1	1	0	0,66	46
ad2a	bai	1	1	0	0,66	71
ae1a	bai	1	1	0	0,66	23
ae2a	ez	2	0	2	0,66	38
af1a	ez	2	2	1	0,568	20
ah1a	ez	1	1	0	0,66	32
ai1a	ez	2	0	0	1	18
aj1a	ez	1	1	1	0,5	15
bf1b	bai	1	1	2	0,39	75
bh1b	ez	0	2	2	0	31
bi1b	ez	0	2	2	0	46
bj1b	bai	0	2	3	0	36
bk1b	bai	1	1	1	0,5	28
bd1b	bai	0	2	3	0	22
gh1g	ez	1	1	0	0,66	29
gi1g	ez	0	2	2	0	27
gj1g	ez	0	2	1	0	13
gk1g	ez	0	2	1	0	10
gk2g	bai	1	1	1	0,5	37
ac1c	ez	1	2	0	0,5	24
ac2c	ez	0	3	2	0	35
ad1d	bai	2	0	1	0,8	30
ad2d	bai	2	0	2	0,66	56
ae1e	bai	1	0	2	0,5	28
ae2e	bai	1	0	1	0,66	25
af1f	ez	0	2	0	0	15
aj1j	ez	0	4	3	0	31
bf1f	ez	0	2	0	0	32
bh1h	ez	0	2	2	0	14
bi1i	ez	1	1	0	0,66	35
bj1j	ez	0	4	3	0	42
bk1k	bai	5	5	1	0,83	53
bd1d	bai	1	1	0	0,66	27
gh1h	ez	0	2	1	0	7
gj1j	ez	1	3	4	0,22	38
gk1k	ez	1	9	2	0,165	18
gk2k	bai	4	6	4	0,44	88

6. Taula. Ikasleen laburpen corpusekin bildutako datuak: Uz, erlazioak ados, erlazioak falta, erlazioak sobra, f-neurria eta hitz kopurua

6. taulako emaitzak interpretatzeko hurrengo puntu hauetan laburpenak ebaluatzeko aztertu ditugun koherentziari dagozkion fenomenoak azalduko ditugu. 4.1 atalean laburpenen luzera izango dugu aztergai, 4.2 atalean Unitate zentrala edo ideia nagusia eta 4.3 atalean erlazio erretorikoak.

3.1 Laburpenen luzera (Taula 6ko azken zutabea "Hitz. Kop.")

Laburpen bat ebaluatzera goazenean testuaren luzera zein den aintzat hartu behar da. Lehendabizi urre patroizko laburpenak zenbat laburtu ditugun ikusiko dugu, jatorrizko testuarekin alderatuta. Alderaketa hori egiteko testuek duten hitz kopurua erabiliko dugu. 7. taulari so egiten badiogu, laburpenen batz bestekoa %25ekoa da jatorrizko testuekin alderatuz, horrek esan nahi du batz beste laburpen bat jatorrizko testuaren laurdena dela luzera aldetik gure lan honetan (hitzak kontuan hartzen badira). Gutxien

laburtu den testua B izan da, % 35. Ostera H eta I testuak izan dira gehien laburtu ditugunak, % 16.

Testuak	Jatorrizko testua	Urre patroizko laburpena	ehunekoa
A testua	214	56	26%
B testua	131	46	35%
C testua	145	49	34%
D testua	174	42	24%
E testua	145	27	19%
F testua	105	30	29%
G testua	130	35	27%
H testua	276	45	16%
I testua	330	53	16%
J testua	195	57	29%
k testua	290	86	30%
Guztira	2135	526	25%

7. Taula. Testuen laburpen ratioa (Irakasleen laburpenak)

Beraz, laburpenak ebaluatzeko batz bestekoa % 25 dela kontutan izanda eta batz bestekotik gehien aldentzen den emaitza % 35 denez, ontzat joko ditugun ikasleen laburpenak % 15 eta % 35 tartean daudenak izango dira, hots, batz bestekoarekiko diferentzia % 10ekoa dutenak.

Irizpide hori aintzat hartuta, 8. taulan agertzen da ikasleek eginiko laburpenen % 69a sartzan dela parametro horretan, luzera aldetik laburpen egokiak dira. Taulan berdez daude. Laburpenik luzeenak jatorrizko testuaren % 57 du eta laburrenak aldiz % 3.

Testuak	jatorrizko testua	ikaslearen laburpena	ehunekoa
ac1a	214	32	15%
ac2a	214	67	31%
ad1a	214	46	21%
ad2a	214	71	33%
ae1a	214	23	11%
ae2a	214	38	18%
af1a	214	20	9%
ah1a	214	32	15%
ai1a	214	18	8%
aj1a	214	15	7%
ak1a	214	43	20%
bf1b	131	75	57%
bh1b	131	31	24%
bi1b	131	46	35%
bj1b	131	36	27%
bk1b	131	28	21%
bd1b	131	22	17%
gh1g	130	29	22%
gi1g	130	27	21%
gj1g	130	13	10%
gk1g	130	10	8%
gk2g	130	37	28%
ac1c	145	24	17%
ac2c	145	35	24%
ad1d	174	30	17%
ad2d	174	56	32%
ae1e	145	28	19%
ae2e	145	25	17%
af1f	105	15	14%
ah1h	276		
ai1i	330	16	5%
aj1j	195	31	16%
ak1k	290	43	15%
bf1f	105	32	30%
bh1h	276	14	5%
bi1i	330	35	11%
bj1j	195	42	22%
bk1k	290	53	18%
bd1d	174	27	16%
gh1h	276	7	3%
gi1i	330		
gj1j	195	38	19%
gk1k	290	18	6%
gk2k	290	88	30%

8. Taula. Testuen laburpen ratioa (Ikasleen laburpenak)

Ikasleen emaitzak testuka ikusteko 9. taulara joko dugu.

i) Emaitza onak luzeran. Laburpen guztiak luzera aldetik ondo eginda egon dira C, D, E eta J testuetan, testuen %36a dira.


ii) Emaitza txarrak luzeran. H eta I testuetariko laburpen bakar bat ere ez da egon ondo eginda, beraz, testuen % 18an ez dute laburpen bakarra ere ondo egin luzerari dagokionean.

Testuak	gainditu
A testua	%64
B testua	%83
C testua	%100
D testua	%100
E testua	%100
F testua	%50
G testua	%60
H testua	%0
I testua	%0
J testua	%100
k testua	%75

9. Taula. Ikasleen corpora eratzen duten testuen ebaluazioa

Testu motari dagokienean emaitza ezberdinak bildu ditugu testuaren generoaren arabera.

- i) Emaitza onenak luzeran. 1. grafikoari erreparatzen badiogu narrazio testu guztiak ondo laburtuak izan dira luzerari dagokionean.
- ii) Emaitza onak luzeran. Azalpen testuen %88ak luzera egokia izan du.
- iii) Emaitza txarrak luzeran. Bakar bat ere ondo egin ez dutenak H (azalpenezko testua) eta I (irakasbide testua) dira. Irakasbide testu bakarra ere ez da egon ondo laburtua.




1. Grafikoa. Ikasleen laburpenen ebaluazioa testu generoen arabera

Jatorrizko testuen luzerak izan dezakeen eragina aztertuko dugu 2. grafioan.

i) Eraitza onenak luzeran. 195-145 hitz bitartean dituzten testu guztietan laburpenak egokiak dira luzera aldetik (J, D, C eta E testuak).

ii) Eraitza onak luzeran. 145 Hitzetik beherako testuetan ehunekoa jaitsiz doa, B (% 83), G (% 60) eta F (% 50) hurrenez hurren.

iii) Eraitza txarrak luzeran. 195 hitz baino gehiago dituztenetan ehunekoetan dagoen beherakada nabarmenagoa da, I eta H testuetan laburpen bakar bat ere ez dago ondo.⁸ Beraz jatorrizko testuen hitz kopuru egokiena 200-150 hitz artean jarri dugu gutxi gorabehera.



2. Grafikoa. Laburpenen ebaluazioa jatorrizko testuen luzeraren arabera ordenatuta

Bukatzeko, norbanakoak duen gaitasuna izango dugu hizpide, horretarako 10. taulaz baliatuko gara.

⁸ K testuaren laburpenetatik % 75a eta A testuaren % 64 ondo daude nahiz eta 200 hitz baino gehiago izan.

i) Luzera egokia emateko erraztasuna. Ikasleen % 54ak bi testuak ondo laburtu ditu luzera irizpidetzat izanda.

ii) Luzera egokia emateko tarteko gaitasuna. Ikasleen % 33ak testuren bat ondo laburtu du luzerari dagokionean.

iii) % 13ak soilik ez du izan testu bakarra ere ondo laburtua luzerari dagokionean.

Horrek guztiak adierazten du ikasle gehienek luzerari dagokionean ondo laburtzen dituztela testuak.


Ikasleak	1.testua	2.testua	Laburpenak ondo
ac1	15%	17%	100%
ac2	31%	24%	100%
ad1	21%	17%	100%
ad2	33%	32%	100%
ae1	11%	19%	50%
ae2	18%	17%	100%
af1	9%	14%	0%
ah1	15%		100%
ai1	8%	5%	0%
aj1	7%	16%	50%
ak1	20%	15%	100%
bf1	57%	30%	50%
bh1	24%	5%	50%
bi1	35%	11%	50%
bj1	27%	22%	100%
bk1	21%	18%	100%
bd1	17%	16%	100%
gh1	22%	3%	50%
gi1	21%		100%
gj1	10%	19%	50%
gk1	8%	6%	0%
gk2	28%	30%	100%

10. Taula. Norbanakoak duen gaitasuna testuak laburtzeko luzerari dagokionean, ezkerreko zutabeen ikasleak daude, erdiko bi zutabeetan zenbateraino laburtu dituzten laburpenak (berdez gaitituak) eta eskumako zutabeak ikasle bakoitzak eginiko laburpenetat

3.2 Unitate Zentrala edo Ideia Nagusia

Jarraian, ikasleek testuaren ideia nagusia behar bezala identifikatu duten aztertuko dugu; izan ere, laburpen bat egiterako orduan unitate zentrala edo ideia nagusia zein den jakitea oinarrizkoa baita.

Unitate zentrala edo ideia nagusiak aztertzean ikasleen % 36ak identifikatu du unitate zentrala, hots, gainontzeko % 64aren laburpenetan ez dago testuko ideiarik garrantzitsuena. 3. Grafikoan ikusgai.




3. Grafikoa. Ikasleek orokorrean nola identifikatzen duten UZ edo Ideia Nagusia

Hala ere, kontutan izan behar da testu batetik bestera dagoen aldea nabarmena dela kasu batzuetan, gure ustez testuaren arabera emaitza ezberdinak izango dira, hots, testuaren ezaugarriek eragina dutela uste dugu ideia nagusiak identifikatzeko orduan.

i) Erraztasuna UZ identifikatzeko. 4. grafikoan ikus daitekeen modura, da D eta E testuetan, horien unitate zentrala eta urre patroizkoa bat datoz laburpen guztietan. C, F, H, I eta J testuei erreparatzen badiegu, konturatuko gara inork ez duela testuko unitate zentrala bere laburpenean ipini, beraz, testuen % 45ean ez da unitate zentrala behin ere identifikatu.

ii) Tarteko zailtasuna UZ identifikatzeko. G testuan % 20ak unitate zentrala ongi identifikatu du, ordea K testuan oreka erabatekoa da, % 50ak ideia nagusia laburpenean jarri du eta beste % 50ak ordea ez. A eta B testuetan emaitza ezberdinak jaso ditugu, A testuan % 36ak unitate zentrala bere laburpenean jarri duen bitartean B testuan % 67ak jarri du.

iii) Zailtasunak UZ identifikatzeko. Ideia Nagusia identifikatzeko zailtasun handiak izan dituzte ikasleek testu batzuetan. C, F, H, I eta J testuei erreparatzen badiegu, konturatuko gara inork ez duela testuko unitate zentrala bere laburpenean ipini, beraz, testuen % 45ean ez da unitate zentrala behin ere identifikatu.




4. Grafikoa. Ikasleek testu bakoitzean nola identifikatu duten UZ edo Ideia Nagusia

Testuaren ezaugarriek eragina izan dezaketela diogunean, ezaugarrietariko bat testuaren luzera izan daiteke. 5. grafikoan hitz kopuruaren arabera ordenatu ditugu testuak.

i) Zailtasunak UZ identifikatzeko. Testurik luzeenak (I), zein laburrenak (F), laburpenen % 0 lortu dute ideia nagusiak identifikatzerakoan.


ii) Erraztasuna UZ identifikatzeko. Ezin daiteke esan tarte jakin batean emaitzak hobeak direnik, esaterako C eta E testuek hitz kopuru bera izan arren, emaitza guztiz kontrajarriak erdietsi dituzte, % 0 eta % 100 hurrenez hurren.



5. Grafikoa. Ikasleek nola identifikatu duten UZ edo Ideia Nagusia jatorrizko testuen luzeraren arabera

Testu generoak aztertzen baditugu, 6. grafikoan ageri denez, ikasleek ideia nagusiak ez dituzte erraztasun berdinarekin identifikatzen testu genero guztietan.


- i) Erraztasuna UZ identifikatzeko. Ondoan azalpen testuetan identifikatzen dute, azalpen testuen % 41ak ondo du identifikatuta ideia nagusia.
- ii) Tarteko zailtasuna UZ identifikatzeko. Narrazio testuetan ehunekoa jaitsez doa, testuen % 29an dago ondo identifikatuta ideia nagusia.
- iii) Zailtasunak UZ identifikatzeko. Irakasbideko testuekin ikasleek dituzten arazoak nabariak dira, testu genero horretan ikasle bakar batek ere ez du ondo identifikatu ideia nagusia edo unitate zentrala.



6. Grafikoa. Ikasleek UZ edo Ideia Nagusia nola identifikatzen duten testu generoaren arabera

Testuek eragina izan dezakete ideia nagusia identifikatzerako unean, baina, baita norbanako bakoitzaren gaitasunak ere. Hori dela eta, ikasle bakoitzak bi testu laburtu dituela baliatuz, ideia nagusiak identifikatzeko unean ikasleen artean egon daitekeen aldea ikusiko dugu.


- i) Erraztasuna UZ identifikatzeko. Ikasleen % 27ak bi laburpenetan ideia nagusia ondo identifikatu du.
- ii) Tarteko zailtasuna UZ identifikatzeko. % 18ak soilik asmatu du bi laburpenetariko batean ideia nagusia zein den.
- iii) Zailtasunak UZ identifikatzeko. Ikasleen % 54ak ez du behin ere ideia nagusia ongi identifikatu.



7. Grafikoa. Norbanakoak duen gaitasuna UZ edo Ideia Nagusia identifikatzeko

3.3 Erlazio erretorikoak

Erlazioei dagokienean, testu guztien batuz bestekoa ateraz gero, 9. grafikoan ageri da ikasleek eginiko laburpenetatik erlazioen % 24a bat datorrela guk eginikoekin. Oстера erlazioen % 44a falta zaie eta beraiek erabilitako erlazioen % 32 soberan dute.



8. Grafikoa. Ikasleek erlazioak orokorrean nola erabiltzen dituzten laburpenetan irakasleen laburpenekin alderatuz

Datu horiekin f-neurria kalkulatu dugu, neurri horrek adieraziko digu erlazio aldetik zenbaterainoko maila duen laburpenak, hots, irakasle biren koherentziara zelan urbiltzen diren adieraziko digu. Konparazio hori izango da gure ebaluatzeke modua, aurretik azaldu dugun bezala. Testu guztien batuz bestekoa f-neurria 0,38 da.⁹ Emaitzen atalaren hasieran datuak biltzeko erabili dugun taulari erreparatzen baldin badiogu ikusiko dugu badela 0 atera duenik ere. 0 atera dutenak ez bagenitu aintzat hartuko 0,53 da emaitza.

⁹ F-neurria 0tik 1erako neurriarekin adieraziko dugu eta corpuseko batez bestekoak ehunekoekin.

Laburpenen % 31an ikasleek 0 atera dute erlazioei dagokienean, ez datozelako bat urre patroizko laburpenetako erlazioekin, zuhaitzaren adar nagusian begiratuta. Gainera laburpenen % 9ak ez du koherentziarik izan (*non-sequitur*).

i) Emaitarik baxuena. 0,165 izan da erdietsi den nota baxuena (GK1K).¹⁰

ii) Emaitarik altuena. 1 izan da erdietsi den nota hoberena (A11A). Hala ere, aipagarria da emaitza altuena atera duenak testuetariko batean, beste laburpenean 0 duela koherentzia ezagatik (*non-sequitur*).


Testu bakoitzaren bataz bestekoa kalkulatu gero, testu batetik bestera dagoen aldea nabaria dela ikusten da 10. grafikoan. Alde horiek honela antolatu ditugu:

i) Emaitarik onena erlazioetan. D testuak du kalifikaziorik altuena (0,7).

ii) Tarteko emaitzak erlazioetan. A (0,55) eta E testuek (0,58) antzeko kalifikazioa lortu dute, D (0,7) testuarekin batera beraiek izan dira 0,5 baino puntuazio altuagoa lortu dutenak.

iii) Emaita kaxkarrak erlazioetan. Gainontzeko 8 testuek 0,5 baino puntuazio baxuagoa izan dute (% 72ak).

IV) Emaita txarrak erlazioetan. Aipatzekoa da F, H eta I testuek (% 36) 0 puntuazioko bataz bestekoa dutela. Beraz, testuek eragina dutela sumatu daiteke erlazioak ongi interpretatzeko orduan.




9. Grafikoa. Testuek bataz beste erdietsi duten emaitza erlazioetan

¹⁰ GK1K glosak esan nahi du G eta K testuak egin dituen 1. Ikaslearen K testuaz mintzo gara.

Unitate zentrala edo ideia nagusia identifikatzerakoan testuaren luzerak eta testu motak izan dezaketen eragina ikusi dugu lehen eta orain gauza bera egingo dugu erlazioekin ere 10. grafikoan.

i) Emaitzarik onenak erlazioetan. 145-214 hitz bitartean izan dituzten testuetan lortu dira emaitzarik hoberenak, J testuan (0,07) izan ezik. K testua ere salbuespentzat har daiteke, bigarren luzeena izanik laugarren emaitzarik onena erdietsi baitu (0,36).

ii) Emaitzarik txarrenak erlazioetan. Luzerari dagokionez, hitz kopuru handiena (I) eta txikiena (F) dituzten testuek erdietsi dituzte emaitzarik baxuenak, biek atera dute 0. H testuaren laburpen guztietan 0 emaitza atera dute, hirugarren testu luzeena da.




10. Grafikoa. Ikasleek erdietsitako emaitza erlazioetan jatorrizko testuen luzeraren arabera

11. grafikoak adierazten du testu generoek erlazioetan izan dezaketen eragina kontutan izatekoa dela.

i) Emaitzarik onenak erlazioetan. Ideia nagusia identifikatzerakoan gertatu den moduan, erlazioak erabiltzean azalpen testuetan izan dute erraztasun gehien ikasleek, 0,404 emaitza lortuz.

ii) Tarteko emaitzak erlazioetan. Narrazio testuetan erdietsitako notaren batz bestekoa 0,312 izan da.

iii) Emaitzarik txarrenak erlazioetan. Irakasbide testuetan ostera emaitza 0 izan da, ez baitute izan erlaziorik ados.



11. Grafikoa. Ikasleek erlazioetan erdietsitako emaitzak testu generoaren arabera


Erlazioekin jarraituz norbanakoak duen gaitasuna ere aintzat hartu behar da, hori dela eta, ikasle bakoitzak erdietsi duen bataz bestekoa aztertuko dugu, kontutan izanda ikasleek bina testu egin dituztela.

i) Emaitzarik onena erlazioetan. 12. grafikoan ikus genezakeenez 0,73 izan da notarik altuena, AD1 ikasleak atera duena.

ii) Tarteko emaitzak erlazioetan. 7 ikaslek (%31) 0,5 edo 0,5 baino gehiago lortu dute.

iii) Emaitza kaxkarrak erlazioetan. Gainontzekoek (%69) 0,5 baino puntuazio baxuagoa lortu dute.

IV) Emaitza txarrak erlazioetan. 0,5 baino gutxiago atera dutenetatik lauk (%18) 0 atera dute.




12. Grafikoa. Norbanakoak duen gaitasuna erlazioetan

Erlazioekin segituz, erlazioek unitate zentralaren identifikazioarekin izan dezakeen lotura aztertuko dugu. Horretarako unitate zentrala ongi identifikatuta duten laburpenak txarto aukeratuta dutenekin alderatuko ditugu. Horrek adieraziko digu, ea unitate zentrala edo ideia nagusia ongi identifikatzen denean, erlazioak ere hobeto zehazten diren.

i) Eraitza berdintsuak falta diren erlazioetan. 13. grafikoan ageri den modura unitate zentrala asmatu duten laburpenen eta asmatu ez dutenen arteko alderik ez dago falta diren erlazioei erreparaturaz; izan ere, kasu bietan erlazioen %32a falta da.

ii) Eraitza ezberdinak ados eta sobra dauden erlazioetan. Unitate zentrala asmatutako laburpenetan ados dauden erlazioak % 35a diren bitartean kopuru hori % 15era jaisten da asmatu ez dutenen laburpenetan. Hori horrela izanda, erlazio gehiago daude sobran (% 53) unitate zentrala ongi identifikatuta ez dagoen laburpenetan, ongi identifikatu dutenetan baino (% 32).




13. Grafikoa. UZ ondo identifikatu dutenen eta UZ ondo identifikatu ez dutenen aldea erlazioak erabiltzerakoan

Gainera, testuetan zenbat eta hobeto identifikatu unitate zentrala orduan eta emaitza hobeak atera dira erlazioetan.

i) Emaitza txarrenak. 14. Grafikoan ikus daitekeenez H, I eta F testuetan ez dute behin ere ideia nagusia identifikatu eta erlazioetan lortu den emaitza 0 da testu horietan.¹¹

ii) Gainontzeko testuei dagokienean, ideia nagusiarekin emaitza hobeak lortu dute erlazioekin baino B, D, E, G eta K testuek¹².



14. Grafikoa. UZren eta erlazioen arteko lotura

¹¹ Badira kasu batzuk, C eta J testua, unitate zentrala behin ere identifikatua ez duten arren erlazioetan 0 atera ez dutenak, hala ere lorturiko f-neurria baxua da gainontzekoekin alderatuz 0,25 eta 0,07 hurrenez hurren.

¹² A testuan aldiz, kontrakoa gertatu da, erlazioetan nota hobeak erdietsi du unitate zentrala identifikatzerakoan baino.

4. Ondorioak

Azken atal honetan aurrekoan lortu ditugun ondorio nagusiak laburbilduko dira, gainera horien inplikazio didaktikoez eta hurrengo lanetarako proposamenez ere jardungo gara.

Lan honek ikasleek Lehen Hezkuntza bukatzean nola laburtzen duten aurkezten du. Ikasleen laburpenak ebaluatzeke hiru aldagai izan ditugu kontutan, i) laburpenaren luzera ii) ideia nagusiaren identifikazioa eta iii) erlazioen erabilera.

Ikasleen laburpenak ebaluatzerakoan aintzat hartu dugun lehen aldagaia luzera izan da. Orotara, esan genezake ikasleek gaitasun hau ondo garatua dutela. Jasotako laburpenen %70ak luzera egokia du. Luzera ebaluatzean testuen ezaugarriek eragina dutela ikusi dugu, baina ez ideia nagusiak identifikatzean eta erlazioak erabiltzean bezain bestekoa. Jatorrizko testuen luzerak eragina du, 145-195 hitz bitartean dituzten testuen laburpenen luzera egokia izan da kasu guztietan, eta hitz kopuru horretatik urruntzen garen heinean emaitzak okerragoak dira. Horrek adierazten du hitz kopuru horiek dituzten testuekin aritzea komeni zaigula azterketa egin dugun ikasle taldearekin. Aipagarria da, erlazioekin eta ideia nagusiarekin ez bezala, narrazio testuak direla luzera aldetik hobekien laburtu dituzten testuak, denak ondo baitaude. Era berean, argi dago irakasbide testuek ematen dizkietela buruhausterik handienak, ez baitute bakarra ere ongi laburtu luzerari dagokionean.

Unitate zentrala edo ideia nagusia identifikatzea izan da ebaluatu dugun bigarren aldagaia. Ikasleen laburpenen % 36ak izan du ideia nagusia ongi identifikatua. Ideia nagusia ongi identifikatzea laburpen bat egiteko orduan oso garrantzitsua da; izan ere, laburpenaren oinarria izango da. Ikasleek garrantzitsua dena baino, ulertu dutena laburtzen dute.

Ideia nagusia edo unitate zentrala identifikatzerakoan testuak eragina izan duela ondoriozta genezake, izan ere, testu batetik bestera egon diren aldeak nabarmenak dira. Testuen % 45ean, ez da behin ere bat etorri unitate zentrala urre patroizkoarekin alderatuz, ostera, D eta E testuetan denek identifikatu dute behar bezala ideia nagusia. Jatorrizko testuaren luzerak ez du eragin handirik. Beste ezaugarri bat testuaren genero mota da, luzerak ez bezala, generoak eragina du ideia nagusia zein den zehazterakoan. Ikasleek azalpen testuetan lortzen dituzte emaitza onenak, narrazio testuekin apur bat gehiago kostatzen zaie ideia nagusia ongi zehaztea eta irakasbide testuekin zailtasun handiak dituzte. Hori dela eta, laburtzeko gaitasuna lantzerako unean azalpen testuekin hasia litzateke egokiena, gaitasuna garatzen doazen heinean, beste testu mota batzuk erabiliko ditugu, narrazioa esaterako. Gaitasuna nahiko garatua izan arte, zailtasunak dakartzkieten testuak ekidingo ditugu, irakasbide testuak adibidez.

Unitate zentrala edo ideia nagusia hobeto identifikatzeko Sanzen (2005) ageri diren trebetasun batzuk jorra daitezke. Oso baliagarria litzateke laburtzea, koherentzia globala

ateratzea eta hierarkikoki antolatzea bezalako trebetasunak garatzea. Trebetasun horiek garatu ahal izateko jarduera ezberdinez balia gaitzke, hona hemen batzuk:

- Laburtze trebetasunerako: paragrafoei izenburua jarri, paragrafotik ideia nagusia atera, mikroposizioak bilatu makroposizioetan, makroposizioak asmatu eta bi paragrafo bateratu, besteak beste.
- Koherentzia globala trebetasunerako: suposizioak bilatu, testuari erreparatu, osatu kontzeptu mapa, kontzeptu mapa handitu eta kontzeptu mapa laburtu, adibidez.
- Hierarkikoki antolatzea trebetasuna: kontzeptu mapak, terminodun paragrafo baten kontzeptu mapa eta terminorik gabeko kontzeptu mapa.¹³

Ikasleek nola laburtzen duten ebaluatu ahal izateko, ikasleek erlazioak nola erabiltzen dituzten aztertu dugu. Erlazioen erabilera aztertuz, laburpenek duten diskurtso-egitura egokia den ala ez jakin ahal izan dugu. Lan honetan ikusi dugu erlazioak aztertzean, unitate zentralak eragin handia duela, hots, zenbat eta hobeto identifikatu ikasleek testuaren ideia nagusia, orduan eta hobeto erabiltzen dituzte erlazioak, Iruskietak (2014) bezala. Beraz ondoriozta genezake, ikasleek ideia nagusia identifikatzeko gaitasuna hobetzen baldin badute, testuaren diskurtso egitura ere hobetuko dutela.

Erlazioei dagokienean, testuaren luzerak eragina du erlazioen erabileran. Ikasleek emaitzarik onenak 214-145 hitz artean dituzten testuetan lortu dituzte, beraz, hitz kopuru hori duten testuekin aritzea da gure gomendioa. Unitate zentralarekin gertatu moduan, testu generoei erreparatzen baldin badiegu, azalpen testuetan lortu dituzte ikasleek emaitzarik onenak, narrazio testuetan zailtasun gehiago izan dute eta irakasbide testuetan aldiz ez dira bat ere ondo moldatu. Horrek berrezten du irakasbide testuak ez direla egokienak ikasleekin laburtze gaitasuna lantzen hasteko.

Erlazioetan testuaren ezaugarriak eragin handiagoa du norbanakoaren gaitasunak baino. Edozelan ere, datu hauek finkatzeko corpusa handitu beharko genuke.

Erlazio-egituraren interpretazio hobeari (ulermen hobeari) begira, ideia nagusia ongi identifikatzeak lagun dezake gehien; hala ere, badira zenbait trebetasun eta jarduera jorra daitezkeenak erlazio trebetasuna lantzeko Sanz (2005):

- Erlazionatu trebetasuna: terminoak erlazionatu eta erlazioaren termino bat bilatu, esaterako.

¹³ Hala ere, ez dugu ulertarazi nahi trebetasun hauek landuz soilik hobetuko dugula ikasleen gaitasuna ideia nagusia identifikatzeko garaian, ezta ideia nagusia hobeto identifikatzeko soilik balio dutela trebetasunok. Gure asmoa jarduera posible batzuk gomendatzea baino ez da.

Orain arte ikusitakoaz gain, norbanakoaren gaitasunak laburpen bat egiterako orduan izan dezakeen eragina aztertuko dugu. Ikasleen % 58ak ez du behin ere ideia nagusia zein den asmatu, % 27ak aldiz bi laburpenetan asmatu du. Mutur bietan horrenbesteko ehunekoa egoteak norbanakoaren gaitasunak ideia nagusiak identifikatzerakoan eragina izan dezakeela adierazten du; beraz, kontuan hartzekoa da hori. Erlazioetan badirudi norbanakoen artean dagoen aldea ez dela horrenbestekoa. Hala ere, emaitza gorabeheratsuak egoteak, norbanakoen artean desberdintasun esanguratsua egon daitekeenaren zantzuak uzten dizkigu. Luzera ebaluatzean aldiz, badirudi norbanakoen artean ez dagoela horrenbesteko desberdintasunik. Hala ere, nahiz eta ikusi norbanakoaren gaitasunak eragina izan dezakeela laburpenak egiterako orduan, ondorio zehatzetara iristeko gure corpusa handitu beharko genuke, ikasle bakoitzak bi laburpen soilioek egin dituelako.

Ikusi dugu ikasleek ideia nagusia identifikatzeko zailtasunak dituztela eta horrek eragin zuzena duela laburpenaren diskurtso-egituran. Ostera, laburpenei luzera egokia ematerako orduan gaitasun handiagoa dute ikasleek. Beraz, ikasleek ideia nagusia ongi identifikatzeko gaitasuna garatzeari eman beharko genioke lehentasuna, horrela laburpenak diskurtso egitura aldetik ere hobekuntza izango duelako.

Laburtzerakoan, testuen ezaugarriek izan dezaketean eragina ikusi dugu, luzerak eta generoak esaterako. Hau guztia ikusita, irakasleak kontutan izan behar du nolako testuarekin ari diren ikasleak lanean. Testuaren ezaugarrien arabera, zailtasun maila ezberdin batekin egingo dute topo ikasleek eta irakasleak ikasleen mailara egokitzen jakin behar du. Egiten dugun jarduera egiten dugularik, gakoa jarduerak ikasleen beharrezan erantzutea da eta azken batean testua izango da jardueraren oinarria. Ikasleen beharrezan erantzutea beharrezkoa da ikasketa esanguratsu bat lortu nahi baldin badugu.

Hala ere, gai honetan sakontzen jarraitzeko beharrezan ikusten dugu; corpusa handituz, informatzaile gehiagorekin, laburpen sistema ezberdinak probatuz, irakasleekin, hauek ondorio interesgarriak ekar ditzaketela uste baitugu. Laburpen gaitasuna ikasleekin garatzeko zein aldagaik eragiten duten jakitea da lehendabiziko pausoa, guk batzuk aztertu ditugu eta ondorengo lanetan beste aldagai batzuk aztertzea interesgarria litzateke, esaterako ikastetxeko irakasleek laburtzeko duten gaitasuna.

Horretaz gain, interesgarria litzateke metodologia ezberdinak kontrastatuz, hezkuntzari egokitutako laburpenak egiteko gaitasuna lantzen lagundu dezakeen proposamen didaktiko bat egitea, jarduera ezberdinetan edo unitate didaktikoren batean oinarritua. Horrela irakasleek tresna bat izango lukete ikasleen laburpen gaitasuna garatzeko.

5. Eskerrak

Nire esker ona adierazi nahiko nioke IXA taldeari, izan ere, lan honetan IXA-Taldeko beka izan dut. Gainera, Mikel Iruskieta ere eskertu nahiko nuke nirekiko erakutsi duen prestutasun eta jarreragatik.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Iruskieta, M. (2014). *Pragmatika erlaziozko diskurtso-egitura: deskribapena eta bere ebaluazioa hizkuntzalaritza konputazionalen*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Iruskieta, M., Diaz de Ilarraza, A., & Lersundi, M. (2014). *The annotation of the Central Unit in Rhetorical Structure Trees: A Key Step in Annotating Rhetorical Relations*. In *COLING* (pp. 466-475).

Moreno, A. M. S. (2005). *Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu: Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko 1. zikloa*. Nafarroako Gobernua.

Zipitria, I., Arruarte, A., Elorriaga, J. A., & Díaz de Llarraza, A. (2007). *Hacia la automatización de la evaluación de resúmenes desde la experiencia cognitiva*. *Revista Iberoamericana de Informatica Educativa*, 5,49-61.

Harluxet (Ed.). (1995). *Euskal hiztegi entziklopedikoa*. Klaudio Harluxet Fundazioa, 2015-11.03an hartuta, hemendik: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

ERANSKINAK

1. Eranskina: Ikasleen eta irakasleen corpusak biltzeko erabili ditugun testuak

A TESTUA¹⁴

Zer da espezie inbaditzailea?

Espezie inbaditzailea da leku batean berezkoa izan ez eta hara gizakiaren bidez iristen den izaki biziduna. Horietako batzuk ez dira ingurune berrira egokitzen eta desagertu egiten dira. Beste batzuk, aldiz, egokitu eta ugaltu egiten dira, baina espezie autoktonoekin bizirauteko lehian desagertu egiten dira. Beste batzuek aurrera egiten dute eta espezie inbaditzaile bihurtzen dira. Eta orduan hasten dira arazoak. Gerta liteke, adibidez, lehen landare asko zeuden zelai batean, gero kanpotik ekarritako bat bakarra gelditzea.

Izan ere, espezie inbaditzaileek autoktonoak jaten eta desagerrarazten dituzte. Horrek, fauna eta flora guztia alda dezake, eta baita kalteak eragin ere. Esate baterako, Itsaso Beltzean medusa bat ikaragarri zabaldu zen, eta landareak ezezik, hango arrain guztiak akabatu zituen. Kaspio itsasora zabaltzeko beldur dira eta hori geldiarazten saiatzen ari dira, besteak beste hor kabiarra dagoelako.

Edonola ere, eragindako kaltea ez da berdina kasu guztietan. Badira arazo larriak eragin dituzten espezieak: karramarro gorria, zebra muskuilua, alga hiltzailea... Beste batzuek arazo arinagoak eragin dituzte. Eta leku batetik bestera ere aldea nabari da. Esate baterako, ganbusiak Gipuzkoan eragindako arazoa ez da hain larria, baina bai, aldiz, Valentziako lurretan. Han "saramuc" arrain autoktonoaren desagertzea eragin dezake. Era berean, Japoniako falopiak ez du kalte handirik eragingo Andaluzian eta Extremaduran, hezetasun handia behar baitu. Aitzitik, oso arriskutsua bilaka daiteke Euskal Herriko ibai ertzetako ekosistamarako.

¹⁴A testuaren iturria: <http://www.hikhasi.eus/artikulu/951>

B TESTUA¹⁵

Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen, baina bizirik daude... BIZIRIK? Bai, eta horretaz

hitz egingo dugu orri hauetan. Zuhaitzak munduko landararik handienak dira, eta, gainera,

haietako batzuk dira planetako izakirik handienak eta zaharrenak.

Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute: fruituak, oxigenoa, zura, erretxina, itzala...

Izan ere,

zuhaitzak desagertuko balira, gizakiok ezin biziko ginateke. Bestetik, animalia askoren babesleku eta elikagai dira. Zuhaitz gehienak basoetan bizi dira, beste landare eta animalia

batzuekin batera. Hala ere, haietako batzuk gure hiri eta herrietan hazten dira.

Zaindu egin behar dugu natura, guztion ardura eta erantzukizuna da hori, eta ez nolana hiko.

Zuhaitzen bizitza hobetzeko zerbait egiten dugun bakoitzean, gizadi osoarentzat garrantzi

handikoa den zerbait egiten dugu. Horregatik, komeni zaigu zerbait gehiago jakitea gure inguruko zuhaitzei buruz, eta, gure ohitura kaltegarriak bazterturik, zuhaitzei bizirik irauten

laguntzeko moduan jokatzeari.

C TESTUA¹⁶

Landareen bidez ura garbi-garbi

Uretako landareek gaitasun handia dute inguruko uretatik haientzako elikagai diren osagaiak (mantenugaiak) hartzeko, eta, beraz, uretatik kentzeko. Herri eta hirietan

¹⁵ B testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/c/document_library/get_file?uuid=fdebc96c-59f3-4603-9bb3-f539d1b6bb08&groupId=10138

¹⁶ C testuaren iturria: <http://zientzia.net/artikuluak/landareen-bidez-ura-garbi-garbi/>

sortzen diren ur zikinak osagai horietan aberatsak izaten dira. Zergatik ez erabili, bada, landareak ur horiek garbitzeko? Horra fitoarazketaren gakoa.

Hondakin-urak berrerabiltzea eta ibaietara edota itsasora ez isurtzea dira, besteak beste, fitoarazketa-sistemak eskaintzen dizkigun abantailak. Ura arazteko sistema horietan, uretako landareak --eta horiei lotutako komunitateak-- bakarrik erabiltzen dira, eta ez dago gehigarri kimikoak erabiltzeko beharrik.

Fitoarazketa-sistemak ez dira gizakiak asmatutako zerbait. Naturako hezeguneetan --hots, urtearen zati handi bat edo urte osoa sakonera txikiko ur-geruza batez estalita dauden lur-eremuetan-- sortzen diren ekosistemak imitatuz eratutako ur-inguruneak dira. Hezeguneetan uraren fluxua oso mantsoa izaten da, eta bertan hazten diren bizidunek denbora nahikoa izaten dute iristen den urak izan ditzakeen hondakinak garbitzeko. Hala, inguruan dituzten lurrazpiko eta gainazaleko urak kalitate onean gordetzen dituzte.

D TESTUA¹⁷

Urola ibaia garbitzeko auzolana egingo da larunbatean

Azkoitiko Udala Urola ibaia garbitzeko auzolana prestatzen ari da larunbaterako, eta herriko eragile, talde eta norbanakoak animatu dituzte bertan parte hartu dezaten. Izan ere, Azkoitiko hainbat talderekin batera garbituko dute ibaia, eta dagoeneko jarri dira harremanetan horietako batzuekin. Zubiola enpresak, esaterako, aurreko larunbatean garbitu zuen berari zegokion eremua, datorren larunbatean ezin dutelako.

Udalaren esanetan, ibaia garbituko dute «ingurumena zaintzeko, zenbait ohitura salatzekeo — ibaira edozer botatzeko ohiturak, esaterako—, auzolana sustatzeko eta herriko taldeek ingurumenarekiko duten konpromisoa azpimarratzeko asmoz».

Hamar zatitan banatuko dute ibaia, eta bakoitzak bere eremua garbitu beharko du. Udalak bere zatia izango du, eta hain zuzen, zati hori garbitzera animatu dituzte herritarrak. Interesa dutenek bihar bitartean eman behar dute izena, materiala behar

¹⁷ D testuaren iturria: <http://urolakosta.hitza.eus/2014/09/16/urola-ibaia-garbitzeko-auzolana-egingo-da-larunbatean/>

bezala antolatzeko ezinbestekoa dutelako. Izena udaleko Ingurumen Sailean eman behar da, nahiz 943-85 71 72 telefonora deituta.

Larunbatean, 09:30ean elkartuko dira, plazan. Udalak eskularruak eta plastikozko poltsak emango ditu, eta 12:00ak aldera amaitzea aurreikusten dute. Bukatutakoan hamaiketako egingo dute plazan, eta jasotzen duten zabor guztia han utziko dute astelehenera bitartean, «herritarrak kontzientziatu daitezten».

E TESTUA¹⁸

Erleen dohain ezezaguna

Denok dakigu zer diren erleak. Denok dakigu ez ditugula oso maite, gerturatz gero hurrentzen saiatzen baikara. Askotan, beldurra izaten diegu; beste askotan, nazka. Denok dakigu zer diren erleak. Bai, baina ba al dakigu zertarako gai diren? Ba al dakigu zein dohain dituzten? Ba al dakigu apiterapia zer den?

Apiterapia ez da gaixotasunak sendatzeko modu alternatibo bat, terapia osagarri bat baizik. Apiterapiak produktu naturalak erabiltzen ditu, koloragarri, kontserbagarri eta beste motako toxikorik gabe. Apiterapiaren barnean, hainbat produktu aurki ditzakegu, guztiak ere erleekin zerikusia dutenak: apitoxina, erleen pozoina; argizaria; erregina-jelea; ezitia, polena, eta propolia.

Apiterapiak eraso egiten die gorputzean dauden gorputz arrotzei; horregatik, modu batera edo bestera, giza gorputzari laguntzen dion terapia osagarria da apiterapia. Haren erabileren artean, osasuna berreskuratzea, gaixotasunak saihestea eta bizimodu neketsuari aurre egitea daude.

Euskal Herrian arrotza izan arren, nazioartean indar handia hartzen ari da, Hego Ameriketako herrialdeetan, batez ere.

¹⁸ E testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&articleId=317267&groupId=10138

F TESTUA¹⁹**Ezin dut neure maskota exotikoa zaindu. Zer egin behar dut?**

Zeure maskota exotikoa zaintzen jarraitu ezin duzula erabaki baduzu, gurekin harremanetan jarri behar duzu **112ra deituz**, bila pasa gaitezten.

Maskotak inoiz ez dira mendian edo naturan askatu behar, are gutxiago arrotzak badira, zeren horrek askotan ingurumen-arazo handiak sorrazten baitizkie bertoko espezieei, esaterako, ibai-karramarroari eta bisoi europarrari, biok ere galbidean baitaude. Gainera, litekeena da izadian bizirik irauteko gauza ez izatea, ez baitira ohituta egoten aterpea eta jana beren kasa bilatzen. Ilundaingo Basafauna Oneratzeko Zentroan, animaliei etxe berri bat bilatzeaz arduratzen gara, animalia behar besteko arduraz zaintzeko konpromisoa hartuko duen beste norbanako bati gordailu-motako lagapen bat egine.

G TESTUA²⁰**Lurra gaixo dago**

Mendeetan naturak eskainitako baliabideak aprobetxatu ditu gizakiak bere onurarako. Baina aprobetxamendu hau neurritz kanpokoan izan da eta gure inguruneak aldaketa izugarria jasan duela konprobatu ahal izan dugu. Populazioaren gehitzeak, industriak eta teknologiaren garapenak natura aldaketa prozesu luze baten barruan sartu dute. Ingurumen arazoak ere testuinguru honetan kokatuko ditugu. Izan ere ingurumena inguratzen gaituena da, bertan daude bizidunen garapenean eragina duten osagaiak eta naturaren parte direnak: ura, atmosfera... Horregatik bizitzaren eta ekosistemen garapenean eragina duten aldaketa horiek ingurumen arazo kontsideratuko ditugu.

¹⁹ F testuaren iturria: <http://centrofaunanavarra.es/eu/animaliak/ezin-dut-neure-maskota-exotikoa-zaindu-zer-egin-behar-dut.html>

²⁰ G testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&articleId=29566&groupId=10138

Ingurumen arazoek nola ez ingurunearen nolabaiteko hondamena ekartzen dute. Hauetariko batzuk gure planetaren arazo orokor modura har ditzakegu, esaterako ozono geruzaren zuloa edo negutegi efektua. Alegia, arazo hauen eragina eskualde geografiko handietan nabarmendu daiteke. Beste arazoak lekuan lekukoak izango dira, eskualde txikietan eragina izango dutenak, industri-isurketak adibidez.

H TESTUA²¹

Landare ugari galtzeko arriskuan

Osasun Mundu Erakundeak (OME) adierazi duenez, sendabelarren gehiegizko salmentak arriskuan jar dezake landare mota ugari bizirik irautea. Tartean badira arrakasta handiagoa duten sendabelarrak. Horietakoa da, hain justu ere, ginseng-a.

Osasun Mundu Erakundeak (OME) adierazi duenez, sendabelarren gehiegizko salmentak arriskuan jar dezake landare mota ugari bizirik irautea. Hori dela-eta eta horrelakorik gerta ez dadin, OMEk belar ekoizleei gomendio batzuk eman dizkie, esplotazioak biodibertsitatea arriskuan jar ez dezan. Tartean badira, besteek baino arrakasta eta erabiltze handiagoa duten sendabelarrak. Horietakoa da, hain justu ere, ginseng-a, batez ere, nerbioek eragindako digestio arazoak sendatzeko erabiltzen dena.

Ginseng basati mota batzuk, horien artean, amerikar basatia, galzorian daude egun, gehiegizko esplotazioaren ondorioz.

Gauza bera gertatzen da beste landare batzuekin ere. *Prunus africana* arbolaren azala ere asko erabili izan da prostatak eritasunak sendatzeko. Egun landare horren eskaria nabarmen handiagoa da eskaintza baino, eta horrek arriskuan jartzen du zuhaitz mota horrek bizirik irautea.

²¹ H testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&articleId=29429&groupId=10138

Eskariak ez ezik, sendabelarrak biltzen dituzten enpresen trakeskeriak ere modu nabarmenean egiten diete kalte zuhaitz horien iraupenari; izan ere, eritasunak sendatzeko azala biltzea nahikoa bada ere, zenbait ekoizlek azalaren gehiegizko zatiak hartzen dituzte, eta horren ondorioz, zuhaitzaren heriotza eragiten dute.

Harpagophytum procumbens izeneko belarra ere gehiegi ustiatzen den beste espezie bat da. Namibia da belar horren esportatzaile garrantzitsua. 15.000 laborari inguruk jarduten dute belar hori lantzen, eta 24 urtean nabarmen jaitsi da uzta, %85 inguru, hain justu ere.

Horiek horrela, OMEk hainbat aholku eman nahi izan ditu. «Jokaera hauek kontrolatzen ez badira hainbat belar espezie desagertu egingo dira, eta, era berean, habitat aberatsak desagertzea eta errekurtsio naturala urritzeta eragingo du», gogorarazi du OMEk. Hori dela-eta, produktoreei laborantza arrazionala eta etorkizuneko uztak kaltetuko ez dituen egiteko gomendioa eman die

I TESTUA²²

HAZI ZEURE ZUHAITZAREKIN BATERA

Ikasi dugu zein garrantzitsuak diren zuhaitzak eta ingurugiroarentzat zein beharrezkoa den gu

zuhaitzak zaintzeaz eta ugaritzeaz arduratzea. Horregatik, komenigarria da landatzen ikastea.

Ekintza “zaila” da hau, eta heldu baten laguntza beharko duzu. Familiari eskatu ahal diozu

laguntza hori. Jarraian azalduko dizkizugun lau urratsak egin beharko dituzu.

1. urratsa: HAZIAK BATZEA

²² I testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/c/document_library/get_file?uuid=fdcbc96c-59f3-4603-9bb3-f539d1b6bb08&groupId=10138

Haritz-ezkur batzuk hartu (urria eta azaroa dira hilabeterik egokienak), zuhaitzetik erori berriak.

Leuna eta batere zulorik gabe eduki behar dute azala. Bazter itzazu txikiegiak edo berdeegiak

direnak. Oihalezko zaku batean edo kutxa batean sartu eta leku lehor eta fresko batean gorde.

2. urratsa: HAZITEGIAN EREITEA

Honakoa behar duzu:

1.- Ibaiko hondarra. Mintegietan edo eraikuntza-materialen biltegietan lortu ahal duzue.

2.- Kutxa bat. Arrandegietan erabiltzen dituzten kortxo zurizkoak oso egokiak dira.

Ereiteko:

1.- Kupula kendu ezkurri.

2.- 5 cm-ko hondar-geruza bat ipini kutxaren hondoan eta ezkur batzuk jarri hondarraren gainean etzanda.

3.- Beste hondar-geruza batez estali ezkurak.

4.- Leku epel batean ipini hazitegia. Heze egon behar du, baina putzurik gabe.

3. urratsa: ALDATZEA

Ezkurak ernamuindu egingo dira bizpahiru hilabeteren buruan. Zabaldu, eta hazten hasiko dira

sustraiak eta zurtoina. Lekuz aldatzeko sasoia da. Ortua edo lur-sail txiki bat da lekurik egokiena. 20 cm utzi behar duzue haritz batetik bestera.

Orturik ez badaukazue, esne-bricketara aldatu haritzak. Horretarako, humus ugaria daukan

lurra bota (mendian edo loradendaren batean lortu ahal duzue). Sustraia lurpean sartu, zurtoina kanpoan utzita. Aire zabalean ipini landareak, Hegoaldera ematen duen balkoi edo leiho batean.

Noizean behin, landareak ureztatu, belar txarrak kendu eta ongarrri natural pixka bat bota.

4. urratsa: MENDIRA!

Garrantzi handikoa da ziurtatzea aukeratu duzuen lekua egokia dela haritzak landatzeko. Horretarako, udaletxera edo zentro espezializaturen batera joan horri buruzko informazioa eskatzera. Leku askotan, Zuhaitz eguna ospatzen dute urtero; oso egun egokia izan daiteke zuen zuhaitzak landatzeko.

Haritz bakoitzaren alboan taket bat ipini eta horra lotu haritza —larregi estutu barik—, haizetik babesteko. Noizean behin, zuen zuhaitzak ikustera joan, lokarriak lasaitu, ureztatu eta ongarritu.

Lan ederra egin duzue, harro egoteko modukoa. Lagunei kontatu eta zuhaitz gehiago landatzera animatu.

J TESTUA²³

Aitonaren antzera

Xabier sekula ez zen mendira joan aitarekin lan egitera. Gazteegia zen oraindik ardiak zaintzen laguntzeko. Etxean geratu ohi zen, eta amari laguntzen zion baratzean edo

²³ J testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/c/document_library/get_file?uuid=e4ceb545-0787-4091-837b-e886d1aceec4&groupId=10138

ukuiluan. Familia betidanik bizi zen mendi baten hegalean zegoen baserri batean. Naturak ematen zizkien bizitzeko behar zituzten gauza gehientsuenak.

Xabierrek zortzi urte bete zituenean, ardiak zaintzen laguntzeko eskatu zion aitak. Xabier pozarren zegoen, mendira joateko gogo bizia zuen eta. Eguzkiaren lehen printzekin batera atera ziren etxetik. Lagun izeneko euskal artzain-txakur bat zihoan haiekin, eta bizkor betetzen zituen aitaren agindu guztiak, buztanari eraginez.

Egun hartan, animalia eta landare berri asko ikusi zituen Xabierrek. Bazekien nola ugaltzen ziren animaliak, behin baino gehiagotan ikusiak baitzituen bildotsak jaiotzen. Baina ez zuen oso ondo ulertzen nola jaiotzen ziren zuhaitzak. Izan ere, inork ez zituen landatzen, haiek baratzeko piperrekin eta tomateekin egiten zuten bezala. Aitak, ezkur bat erakutsirik, azaldu zion nola, baldintza egokiak bilduz gero, haritz eder bat sortuko zen fruitu txiki hartatik. Xabierrek lurretik ezkur bat hartu eta poltsikoan gorde zuen.

Etxera heldu zenean, amari esan zion ezkur bat hartu zuela basoan, haritz bat landatzeko. Amak, ortuan lan egiten zuenez, asko zekien landareei buruz, eta zehatz-mehatz azaldu zion nola landatu behar zuen zuhaitza.

K TESTUA²⁴

Zuhaitz baten historia

Ni landare gaztea nintzenean, hemen ondoan daukadan kamino hau orain baino bide lasaiagoa zen. Bizikletaren bat edo gurdiren bat besterik ez zen pasatzen.

Orain, berriz, hau zalaparta! Zabaldu egin dute pixka bat eta asfaltatu ere bai. Motorrak, autoak eta kamioiak pasatzen dira, bizikletaren bat edo beste eta hirira joan eta etorri ibiltzen den autobus hau.

²⁴ K testuaren iturria: http://www.ikasbil.net/c/document_library/get_file?uuid=e4ceb545-0787-4091-837b-e886d1aceec4&groupId=10138

Urtetan zehar lagun asko egin ditut. Ni ezin naiz hemendik mugitu, baina bertara etortzen zaizkit lagunak: txolarreak, sugandilak, euri tantak, elur malutak, kakarraldoak, urretxindorrak, marigorringoak...

Denbora luzez zakur bat etortzen zen arratsaldero-arratsaldero nire enberrari pixa egitera... Oso lagunak egin ginen eta batzuetan nire gerizpean etzaten zen.

Egun batez, zakurra nire ondoan zegoen batean, gizon bat zetorrela ikusi nuen bizkarrean aizkora hartuta. Udaletxeko langilea zen bere txapel eta uniformearekin.

Ni botatzera zetorren. Argiaren kableak jarri nahi zituzten ni bizi nintzen inguru hartan.

Laster ikusi zuen zakurrak ere uniformeaz jantzitako gizon hura eta zaunka egin zion. Zakurraren hortz zorrotzak ikusi zituenean, udaletxeko gizona beldurtu egin zen eta korrika aldegin zuen handik.

Baina handik egun batzuetara ni botatzera etorri zen berriro. Beste hiru gizonekin azaldu zen, denak uniformeaz jantzirik. Nire lagun zakurra ez zegoen han eta ez nekien zer egin. Ez neukan inoren laguntzarik.

Hasieran ez nuen ikusi, baina hantxe zegoen hodeia niri laguntzeko prest. Eta nire enborrean aizkora sartzera zihoazen unean, hodeia ireki egin zen eta euri zaparrada izugarria hasi zuen.

Bat-batean tximista bat sartu zen nire ondoan. Beldurtu egin ziren lau gizonak eta korrika aldegin zuten handik. "Horrela tximistak sartzen diren lekuan ezin daitezke indarraren kableak jarri"—esan zuten udaletxeko gizonek.

Eta geroztik bakean utzi naute. Inor ez da gehiago etorri ni botatzeko asmotan. Asko hazi naiz, indartsu nago eta lasai bizi naiz orain. Lagunak maite ditut eta beraiek ere maite naute ni.

2. Eranskina: Irakasleen laburpenen urre patroizko corpora

A TESTUA

Espezie inbaditzailea izatez leku batekoa ez den baina gizakiak bertara eraman duen izaki biziduna da. Horietatik batzuk ez dira egokitzen ingurune berri horretara, beste batzuk ordea bai. Egokitzea lortzen duten horiek autoktonoak jan eta desagerrarazten dituzte eta ondorioz fauna eta florak aldaketak jasan ditzake, horrek arazo ugari sortuz, kasu batzuetan larriak eta beste batzuetan aldiz arinak.

B TESTUA

Zuhaitzak ezinbestekoak ditugu gizakiok bizi ahal izateko; izan ere, gauza asko ematen dizkigute gizakioi eta gainera animalia askoren bizitoki eta elikagai dira. Arrazoi hori dela medio, gure ohitura kaltegarriak baztertu behar ditugu zuhaitzen mesedetan. Azken finean natura zaindu egin behar dugu, guztion ardura eta erantzukizuna baita.

C TESTUA

Ur zikinak garbitzeko fitoarazketa erabil genezake; horrela, uretako landareek beraien inguruko ur zikinetatik har ditzakete elikagaiak, herrietako eta hirietako ur zikinetan egoten direnak hain zuzen ere. Horri esker hiriko ur zikinak edo hondakin urak berrerabiliko genituzke eta ez genituzke ibaietara eta itsasoetara isuriko, lurrazpiko eta gainazaleko uraren kalitatea bermatuz.

D TESTUA

Urola ibaia garbituko dute auzolanaren bitartez ingurumena zaintzeko, zenbait ohitura salatzen, auzolana sustatzeko eta herritarrek ingurumenarekiko duten konpromisoa erakusteko asmoz. Horretarako larunbatena elkartuko dira 9:30etan plazan eta interesa duenak izena eman beharko du udaleko Ingurumen Sailean edo 943-85 71 72 telefonora deituz.

E TESTUA

Apiterapia produktu naturalak erabiltzen dituen terapia osagarria dugu, erleeen dohainetan oinarriturikoa. Apiterapiak giza gorputzari laguntzen dio; izan ere, terapia horrek eraso egiten die gorputzean dauden gorputz arrotzei.

F TESTUA

Ez baduzu zure maskota exotikoa etxean zaintzen jarraitzerik 112ra deitu behar duzu. Izan ere, maskotak ezin dira naturan askatu, horrek ingurumen arazoak ekar baititzake edo baliteke maskotak berak ezin bizirautea.

G TESTUA

Neurriz kanpo erabili ditu gizakiak natura baliabideak eta ondorioz ingurumen arazoak sortu dira. Arazo horiek gure ingurunearen hondamena dakarte, dela planetaren arazo orokortzat har daitezkeenak (negutegi efektua), dela lekuan lekuko arazotzat har daitezkeena (industri isurketak).

H TESTUA

Sendabelarren gehiegizko salmentek kolokan jar dezakete landare askoren iraupena. Arrazoiatariko bat da landare batzuen eskaria eskaintza bera baino altuagoa izatea, bada bestalde beste arrazoirik ere, enpresen kudeaketa kaskarra esaterako. Espezie askoren desagertzea ekiditeko OMEk laborantza arrazionala eta etorkizuneko uztak kaltetuko ez dituen egiteko gomendatu du.

I TESTUA

Zuhaitzak landatzen ikastea komenigarria da. Lehenik eta behin haziak batu behar dira, zuhaitzetik erori berriak. Ondoren hazitegian erein behar dira, ezkurrei kupula kenduta bi hondar geruzaren tartean. Hurrengo urratsa lekuz aldatzea izango da, zurtoina eta sustraiak dituenen. Azkenik mendira baino ez dira eraman behar, horretarako haritza landatzeko leku egokia hautatu beharko dugu.

J TESTUA

Xabier gaztea izan arren, behin mendira joan zen aitarekin ardiak zaintzera. Bertan, animalia eta landare berri andana ezagutu zituen baina ez zuen oso ondo ulertu nola jaiotzen ziren zuhaitzak. Aitari galdetu eta aitak erantzun zion ezkur bat haritz bihurtzen zela baldintza egokiak izanez gero.

Geroago, amak etxean azaldu zion nola landatu behar zuen aitarekin harturiko ezkurra mendian.


K TESTUA

Bazen kamino baten ondoan bizi zen zuhaitz bat. Arratsaldero, txakur bat joaten zitzaion pixa egitera. Behin udaletxeko langile bat joan zen zuhaitza bota eta argiaren kableak jartzeko asmoz, baina txakurrak langilea beldurtu egin zuen, zuhaitza babesteko.


Egun gutxiren buruan udaletxeko langilea beste hiru gizonekin itzuli zen eta oraingoan txakurra ez zegoenez, hodeiak zuhaitza babesteko eta udaletxeko langileak handik bidaltzeko, zaparrada eta tximista bat bota zien. Horren ondorioz, gizonak beldurtu egin ziren esanez tximistak sartzen diren lekuan ezain daitezkeela indarrean kableak jarri. Geroztik bakean bizi da zuhaitza.

3. Eranskina: Ikasleen laburpen corpusak, argazkietan

- AC1 ikaslearen A testua



- AC1 ikaslearen C testua



- BF1 Ikaslearen B testua

1. Ariketa

- Asma esazu testua laburtzen duen titulu bat.

Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen

3. Ariketa

- Egin testuaren laburpena

Esaten du testuan, zuhaitzak ez dira leku batetik mugitzen bizirik daudela, zuhaitzak munduko altuenak direla handienak eta zaharrenak. Zuhaitzak gauza asko ematen dizkigute: Fruituak, oxigenoa, zura, erretrina, itzala... Zuhaitzak desogertuen badira, gizakiok ezin genoen biziko oxigeno barik. Animalien elikagaiak ere bai dira zuhaitzak ematen dizkiote. Basoan beste animali batekin zuhaitzak bizitzen dira. Natura denok zaindu behar dugu guztion ardura da. Komeni zagu gauzak gehiago jakitea naturatik kaltekatu ez egitea horrela zuhaitza gehiago bizirik egongo dira.

- BF1 ikaslearen F testua

1. Ariketa

- Asma esazu testua laburtzen duen titulu bat.

EZIN DU BERE MASKOTA ZAINDU ZER EGITEN DUT?

3. Ariketa

- Egin testuaren laburpena

Ezin baduzu zure maskota zaintzen deitu 112ra, guk erabakiko dugu zer egin. Maskota inoiz ezin duzue mendian utzi. Problema asko ematen baduzu beste zentro bat bidali, beste familia bat akositzeko konpromiso batekin.

- GH1 ikaslearen G testua

1. Ariketa

- Asma esazu testua laburtzen duen titulu bat.

- Ozono geruza luzeatu al daiteke.

3. Ariketa

- Egin testuaren laburpena

Mendeetan natura eskaindu digu gauza asko baina denborarekin gizakiak aprobetxatu dute asko, eta denborarekin notatuta da, eta gizakiak ordea jarraitzen ba dute ozono geruzan zulo bat egin al da.

- GH1 ikaslearen H testua

1. Ariketa

- Asma esazu testua laburtzen duen titulu bat.

- Landareak galduta al daitezke.

3. Ariketa

- Egin testuaren laburpena

Landareak arriskuan daude, Landare geiegi zaltzen dira.

- AD1 ikasleren D testua

1. Ariketa

- Asma esazu testua laburtzen duen titulu bat.

Ibaia garbitzeko auzolana


3. Ariketa

- Egin testuaren laburpena


Azkoitiko udala Urola ibaiaren garbitzeko auzolana prestatzen ari da. Lanburuetan, eta herriko eragile, talde eta norbanakoei animatu dituzte bertan parte hartzeko. Hamar zatietan banatuko dute ibaiaren bakoitza bere zatian garbitzeko.

4. Eranskina: Ikasleen eta irakasleen laburpen corpusen arteko konparaketa, argazkiak


- AJ1 ikaslearen A laburpena irakasleen laburpenarekin alderatuta




- BJ1 ikaslearen B laburpena irakasleen laburpenarekin alderatuta



Uz: bai
Erlazioak: ados 0/ falta 2/ sobra 3
Hitz: 36




- BK1 ikaslearen K laburpena irakasleen laburpenarekin alderatuta



Uz: bai
 Erlazioak: ados5 / falta 5/ sobra 1
 Hitz: 53

bk1k

- AE2 ikaslearen E laburpena irakasleen laburpenarekin alderatuta



Uz: bai
 Erlazioak: ados 1/ falta 0/
 sobra 1
 Hitz: 25

ae2e